

Hasi da ikasturtea

Ikasgeletara itzuli dira ikasleak, COVID-19a tarteko, iazko osasun protokolo berak dituzte zentroek / 6-7

Pandemia ez da oztopo izan

Buruntzaldeako euskaltegiek jardunari eutsi diote COVID-19aren garaian, indartsu sentitzen dira ikasturte berrira begira / 8-9

EAJ "pozik" agertu da udal gobernuak lurpeko edukiontziak kentzeko egin duen proposamenarekin / 2

Stock Azokaren balorazioa egin dute Aterpea merkatarien elkarteko zenbait komertziok / 4

Urte erdi eta gero, Xumela koruko kideek entsegueri berrekingo diete irailaren 20an, astelehenarekin / 5

Nahia Zudaire Borregok bi diploma olinpiko eskuratu ditu Tokioko Paralinpiar Jokoetan / 10

Arraun Lagunak eta Hondarribia Bertako Igogailuak, Kontxako banderako ohorezko txandan / 11

Ostadar SKTko Erregional Gorengoen futbol taldeak igoera fasea buruan duela hasiko du liga / 12

BACK OUTSIDE

2 MÓ
graduatu erreflexuen
aurkako lenteekin

99€



Kontsultatu optikan kanpainaren ezagutza.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   



Udal gobernuak lur azpiko edukiontzia kentzeko proposatu du. Asmo hori txalotu egin du Lasarte-Oriako EAJk. TXINTXARRI

Lur azpiko edukiontzia kentzearekin "pozik"

Lasarte-Oriako EAJ alderdiak zoriondu egin du udal gobernu taldea, orain bi urte oposizioak lur azpiko edukiontzien gainean aurkeztu zizkion neurriak bere egiteagatik, eta "pozik" agertu da alderdia, lurpeko edukiontzia kentzeko proposamenarekin

Txintxarri

Udal gobernu taldeak lurpeko edukiontzien gainean hartutako erabakia (haiek kentzea) "ezin zela bestelakoa izan" azpimarratu du Jon Antxordoki Lasarte-Oriako EAJko bozeramaileak. Gogorarazi du txosten teknikoek lurpeko edukiontzia kentzea babestu dutela, eta herritarren kontsultaren emaitzak ere, parte-hartze oso txikia izan arren, ezabatzearen aldekoak izan zirela. Azpimarratu du baita ere, "oposizio osoa" lur azpiko edukiontzia kentzearen alde egon dela eta horrela adierazi izan dutela beti.

Udalean, oposiziotik eta herritarren kontsulta deitu

baino lehen, orain hartu nahi diren neurri berak hartzeko eskaera egin zutela azaldu du, eta orain hartutako erabakia bi urte beranduago hartutakoa dela. Batzordeak, informazio-programak eta herritarren kontsulta antolatze ahalegin tekniko eta ekonomiko guztiak birziklatze-helburu hobekak lortzeko kanpainen lorpenean oinarritu beharko lirakeela esan du.

Agustin Valdivia alkateak eta David Mateos Zerbitzu Publikoetako batzordeburuak egindako proposamenarekin "pozik" agertu da Antxordoki, eta gaineratu du, EAJk horretarako kontsulta baten beharra ikusten ez bazuen ere,

udalean lan egin dutela, udal gobernu taldeak aurkeztutako hasierako proiektuari zuzenketak eta hobekuntzak proposatuz.

Halere, alderdi jeltzaleak uste du hemendik aurrera "azeleragailua" zapaldu behar dela: "Ezin dugu denbora gehiago pasatzen utzi". Gogorarazi du, herritarren kontsultaren oinarrien arabera, gobernu taldeak 90 egun zituela plana aurkezteko: "Neurriak hartu behar ditugu lehenbailehen. Hondakinak kudeatzeko ordenantza joratu eta onartu behar da, eta pizgarri fiskalak ezarri behar zaizkio etxetik ondo kudeatzen duenari".

Kultur etxeko eta Gaztelekuko ikastaroen izen-ematea zabalik

Eskaintza "zabala" prestatu du udalak; parte hartzeko epea irailaren 17an amaituko da, ostiralarekin

Txintxarri

Argazkigintza, zurgintza, parkour, Gipuzkoako historia, moda zirkularra, meditazioa, memoria... Lasarteoriatarrek alor horiek guztiak eta gehiago landu eta ikasi ditzakete, udalak antolatu

dituen ikastaroetan parte hartzen badute. Izena emateko epea irekita dago, eta irailaren 17an bukatuko da, ostiralarekin. Formulario hau bete behar dute interesa dutenek: <https://forms.gle/DzNuSD8H5sYQmmkJA>.

Programazio "zabala" prestatu du udalak, eta jakinarazi duenez, espazio hauetan burutuko dira ekintzak: Manuel Lekuona Kultur Etxean, Gaztelekuan eta Antonio Mercero gunean. "Biztanleek herriko gizarte bizitzan parte hartzea nahi dugu, eta trebezia, gaitasunak, autonomia, genero berdintasuna eta tolerantzia sustatu", adierazi du udalak.

Gazte zein helduentzako ikastaroak, auzoetako jarduerak eta 5+1 ikastaro irekiak egitasmoa eskaini ditu udalak. Azken horren



Lasarte-Oriako intzidentzia-tasa 267,79 izan da irailaren 8an. TXINTXARRI

Intzidentzia jaitsi da, eta eremu horira igaro da Lasarte-Oria

Datu ofizialen arabera, koronabirusak 2.120 lasarteoriatar kutsatu ditu pandemia lehertu zenetik

Txintxarri

Koronabirusaren intzidentzia apaltzera egin du azken egunetan, bai behintzat Lasarte-Orian: irailaren 8ko datuak eskuetan —horiek izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan dituen azkenak, edizioa itxi aurretik—, eremu laranjatik horira igaro da herria; intzidentzia-tasa metatua 267,79 izan da egun horretan; bezperan, 304,5. Urteko bederatzigarren hilabetea hasi zenetik, 22 kutsatze baieztatu dituzte Lasarte-Orian, eguneko ia hiru (2,75). Abuztuko batez bestekoa ia bikoitza izan zen: 5,2. Azken hamalau egunetan 51 positibo diagnostikatu dituzte.

Abuztuaren 14tik aurreneko aldiz, iraileko egun batean (zehazki, 7an, asteartearekin) ez dute kutsatze bakar bat ere atzeman. Azken hilabeteetan ez da batere ohikoa izan hori. 100 egun daude ekainaren 1etik

irailaren 8ra, eta zazpitan ez da positiborik diagnostikatu Lasarte-Orian: ekainaren 11, 12, 19 eta 20an; uztailaren 2an; abuztuaren 7an eta 14an; eta irailaren 7an.

Iraileko joerak horrelakoa izaten segitzen badu, ez da intzidentzia gehieneko hilabetea izango herrian, ezta gertu ibili ere. Oraingoz, 2020ko azaroan atzeman dira kasu gehien: 275 guztira, eguneko 9,2.

Eskualdeko egoera

Irailaren 8an zazpi kutsatu berri baieztatu dituzte eskualdean: hiruna Lasarte-Orian eta Urnietan eta bat Astigarragan. Andoainen, Hernanin eta Usurbilen, berriz, bat bera ere ez. Urnieta izan ezik (gune laranjan dago), gainontzeko udalerrri horiek guztiak eremu horian daude, 60 eta 299 kasu arteko intzidentzia-tasekin.

bitartez, gizarte edo kultura eremuko ikastaro berriak sortzea bultzatu nahi du. Horretarako, lasarteoriatarrek gustuko dituzten tailerrak proposatu ditzakete, baldin eta gutxienez sei pertsonak izena ematen badute, iradokizuna egin duenak eta beste bost. Baldintza hori betez gero, saioak antolatze konpromisoa hartzen du udalak. Tailer horiek iraupen laburreko zein luzekoak izan daitezke, alor askotakoak: aisia, kultura, gazteria, hezkuntza... "Iradokizun

tradizionalak, originalak, gaur egungoak edota berritzaileak izan daitezke".

Entseatzeko gelak

Udalak jakinarazi du berriz irekiko dituztela Gaztelekuan entseatzeko gelak. Izena eman nahi dutenek irailaren 30era arteko epea dute, osteguna. Aretoren bat erreserbatu nahi dutenek udal instantzia bat bete beharko dute, eta zenbait datu pertsonal eman: taldearen eta partaideen izenak, adibidez.

Euskararen bidea elkarrekin egiteko deia

Matrikulazio kanpaina betean murgilduta dago Lasarte-Oriako Muntteri-AEK euskaltegia. Irailean zehar eman ahalko dute izena herritarrek, A1 eta C2 arteko mailetan. Informazioa eskatu nahi dutenei Geltoki kaleko bulegora joatea gomendatu diete arduradunek

Txintxarri

Okendo plazan eta inguruetan ibili zenak, ziur asko, bizikleta laranja bat ikusiko zuen irailaren 7an, asteartez. Txirrinda bainoago, bizidekarra, AEKren matrikulazio kanpaina berriaren ikurra. Bi plaza ditu ibilgailu horrek: bat, ikaslearentzat; eta bestea, irakaslearentzat. Aurtengo kanpainaren ardatza azken hori da, irakaslea, "euskara ikasteko bidelagun onena". AEK-k azpimarratu du irakasleak direla, ikasleekin batera, euskaltegiatiko "altxorrik garrantzitsuenak, eta, bereziki, ikaslearen pertsonarik hurbilenak, bidelagunak". "Bide guztiak omen doaz euskarara... eta batzuk atseginagoak eta eraginkorragoak dira. Hori dela eta, herritarrak animatzen ditugu euskara ikastera AEKren bidean".

Bizidekarrarekin ateratako argazkietako batean, herriko Muntteri-AEK euskaltegiako irakasle taldea azaltzen da; irudi sinboliko horren bidez, lasarteoriatarrek animatu nahi dituzte euskara ikastera aurrean, haien artean egokiena den moduan: aurrez aurre, online edo autoikaskuntzaren bidez, tutore batekin. A1 mailatik hasi eta C2ra arteko ikastaroak egin ditzakete.

Matrikulazio kanpaina irail osoan zehar dago zabalik, baina



Muntteri-AEK euskaltegiako ikasle eta irakasleak, hasteko irrikaz. TXINTXARRI

Muntteri-AEK euskaltegiak "lehenbailehen" izena ematea gomendatu die interesa duten pertsonari. "Hartara, errazagoa da taldeak osatzea eta ikasturte hasiera antolatzea", zehaztu du Garazi Zinkunegi zuzendariak. Informazio eskarera presentzialki egitera animatu ditu lasarteoriatarrek, aurrez aurreko harremana "aberasgarriagoa" delako. Geltoki kaleko 17. zenbakian du egoitza euskaltegiak, eta hauxe da ordutegia: 11:00etatik 13:00era eta 18:00etatik 20:00etara.

Harremanetan jartzeko bide gehiago: 607 62 52 33 telefono zenbakia eta lasarte@aekeus helbide elektronikoa.

Mintza taldeak

Maila bakoitza lantzeko ikastaroak ez ezik, mintza taldeak sortzeko asmoa ere badu Muntteri-AEK euskaltegiak: asteen bi egunez elkartuko lirateke ikasleak, euskaraz hitz egiteko trebetasuna jorratzeko, batez ere. B2 maila edo altuagoa duten estudianteei zuzendutako egitasmoa dela zehaztu du Zinkunegik.



NEURE KABUZ

LIERNI REKONDO

Berri usaina

Irailak berri usaina du niretzat, liburu bat irekitzerakoan orriek jariatzen dutenaren antzekoa. Eskolarako arkatzak eta boligrafoak erosten genitueneko kutsua hartzen diot; arkatza eta betetzeke dagoen orri zuri bat aurretik. Argi dago bortitz etortzen den hilabetea dela, gehienok motel xamar harrapatzen gaituena baina, bada, baita ere, errutinara bueltatzeko eta kokatzeko unea, kaosa ordenatzeko.

Gorka Urbizuk zerotik hasteko parada gisa definitzen zuen eta hala izaten da sarritan, gutako askorengain, iraileko lehen egunak urtarrilekoak baino pisu handiagoa baitu. Nik, hasieran aipatutako paralelismoan onduz, nobela berri baten hastapen gisa definitzen dut iraila, edo saiakera berri batena, perspektibak eta aurreiritziak definitzen dute generoa. Eta beharbada nobela gisa hasten denak poema bilduma bat izaten amaituko du, autolaguntza liburu bat bestela. Dena dela, hasteak badu nahikoa meritu ez baita beti erraza izaten, orri zuriaren eta iruzurgilearen sindromeak talka egiteak idazkia kolokan jartzen baitu. Beraz, hartu boligrafoak eta ekin idazteari; hasi zara dagoeneko, eta ez da gutxi.

Irakurle, idazle: liburu berri on.

2021-2021 ikasturteko eduki ikusien errepaso

Hilabeteroko artikulua irakurrienen bideo bilduma egin du TXINTXARRI aldizkariak; atari digitalean daude denak ikusgai

Txintxarri

Ikasturte berria hastearekin batera, bukatu dena errepasatu du TXINTXARRI aldizkariak; hilabetez hilabete irakurrienak izan diren edukiak bildu ditu, eta bideo bana egin du 2020ko irailetik 2021eko uztaileira, baita kurtso osoko hamar artikulua ikusien ikus-entzunezko bat ere. Bideo horiek guztiak kanal berezi batean jaso ditu lantaldeak. Hauxe da esteka: <https://>

txintxarri.eus/bereziak/ikasturteko-ikusienak.

Esku artean duzun aldizkaria 2021-2022 ikasturteko bigarrenena da. Lasarte-Oriako Udalarekin 41 agerkari publikatzea hitzartu du Ttakun Kultur Elkarteak. Ondo bidean, 37 arruntak izango dira, hamasei orrikoak, eta bereziak beste lauak, 32koak. Eguberrietan eta San Pedro Jaietan kaleratuko genituzke berripaper berezi horiek.

txintxarri aldizkariak

BANATZAILE lan-poltsa osatu nahi du

ostiraletan herrian aldizkaria banatzeko.

Kotxea edukitzea eta lasarteoriatarra izatea lehenetsiko da.

Deitu edo idatzi WhatsApp bidez 688 68 35 10 telefonora edo bidali zure curriculum: txintxarri@ttakun.eus

Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria





Lasarte-Oriako Merceria Mauxak gizonezkoen kaleko arroparen eskaintza egin du, gehienbat, aurtengo Stock Azokan. TXINTXARRI

Espero baino mugimendu gutxiago, Stock Azokan

Biltegiko produktuen eskaintza zabala egin dute Aterpea merkatarien elkarteak antolatu duen Stock Azokan. Guztira hamabost komertziok parte hartu dute eta eurretako batzuekin hitz egin du TXINTXARRI-k, egitasmoaren balorazioa eskatzeko

Txintxarri

Biltegiko produktuen eskaintza berezi bezain zabala egin dute Aterpea merkatarien elkarteko hainbat komertziok, irailaren 2tik 4ra, udazkeneko denboraldiari hasiera eman aurretik.

Aterpea merkatarien elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean antolatu dute egitasmoa, eta herriko hamabost establezimenduk parte hartu dute: Ana gizonezkoen ile apaindegia, Mabel Modak, Arregui Elektrizitateak, Fernandez Ehunakek, Deco 75 Textil Hogarrek, Artesania Ines Floresek, Merceria Olmik, Bazar Abreuk, Urruzola mertzeriak, Alba modak, Imagine jantzi dendak, Calzados Lederrek, Iturbe zapata dendak, Merceria Mauxak eta Dulce Tentacionek.

TXINTXARRI-k horietako batzuekin hitz egin du azokaren nondik norakoak jakiteko. Mabel modako jabe Mabel Pedreirak "balantze positiboa" egin du.

Kontatu du azoka baliagarri izan zaiola biltegian zituen "produktu atzeratuak" saltzeko, baina COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioak antzeman direla ere azpimarratu du: "Aurreko urteetan egindako azokarekin alderatuta, bezero gutxiago ibili da aurtengo herriaren inplikazioa faltan bota dut".

Ana gizonezkoen ile apaindegiko Ana Ezeiza jabeak ilerako produktuen eskaintza egin du Stock Azokan, eta kontatu du "gutxi" saldu duela: "Bezero asko harritu egiten dira ilea moztera etorri eta ilerako produktuak saltzen ditudala ikusten dutenean; horretarako baliatu nahi izan dut azokaren aukera, ilerako produktuak ile apaindegian salgai ditudala ezagutarazteko".

Denak ala denak, antzeko

Arregui Elektrizitateak eta Fernandez Ehunak komertzioek ere parte hartu dute aurtengo

Stock Azokan. Eta aurreko balorazioen ildo beretik egin dituzte eurenak.

Arregui Elektrizitateak dendako Ainhoa Arregi jabeak jakinarazi du Stock Azokaren aitzakiarekin bezeroak gerturatu direla dendara, baina azokako eskaintzak baino, bestelako produktuak saldu dituela gehienbat.

Fernandez Ehunak dendako Iñaki eta Jose Luis Gatzia anaiek lehen aldiz egin dute bat egitasmoarekin, eta aitortu dute bezero gutxi ibili den arren, eskaintzan izan dituzten udako zenbait produktu saldu dituztela: "Garaia ere ez da erraza; iraila da, oporren bueltatik gatoz, baina tira, zertxobait saltzeko aukera izan dugu".

Aterpeko lehendakari Miguel Angel Prietok esker hitzak zuzendu dizkie herritarrei, herriko komertzioarekiko duten konpromisoagatik, eta urtea amaitu aurretik martxan jarriko dituzten kanpainei adi egoteko deia ere luzatu die.



Irailaren 20tik urtarrilaren 28ra iraungo dute aurtengo ikastaroak. TXINTXARRI

Irailaren 20an hasiko da Emakumeen Zentroko ikasturtea

Gustu guztien neurria egindako ikastaroen eskaintza egin du, aurtengo ere, Emakumeen Zentroak

Txintxarri

Emakumeen Zentroak irailaren 20an emango dio hasiera ikasturte berriari. Iaz bezala, aurtengo ere COVID-19ak eragindako osasun krisia medio, ikastaro guztien edukiera mugatua izango dela iragarri du udalak. Ikastaro batzuk doakoak izango dira, eta beste batzuk, berriz, ordainpekoak.

Asteleheneetik asteazkenea, irailaren 6tik 8ra izan dute herritarrek izena emateko aukera, eta datozen egunetan jakingo

dute ikastaroan parte hartu ahal izango duten edo ez. Hain zuzen ere, antolatzaileek jakinarazi dute ikastaroetan izena eman duten pertsonak, eskainiko diren plaza kopurua baino gehiago badira, zozketa egingo dutela izen eman dutenen artean. Zozka irailaren 10ean egingo dute Emakumeen Zentroan, ostiralarekin.

Ikastaroen iraupena ere jakinarazi dute; irailaren 20an hasiko dira, eta urtarrilaren 28an amaituko.

Teknologia berrietan sakontzeko aukera, KZGunearen eskutik

Irailan zehar teknologia berriekin lotura duten saio ugari egin ditzakete lasarteoriatarrek, aurrez aurre edo bideokonferentzia bidez. Orotara, hamar alor jorratuko ditu KZGuneak hilabete zehar, eta 44 ikastaro eskainiko ditu. Horietatik gehienak gaztelaniaz izango dira, 36, eta euskaraz beste seiak. Ikastaro gehienak pare bat egunetan egiteko modukoak dira, lau ordukoak.

Administrazio digitala; aisia eta entretenimendua; enplegu bilaketa; irudia eta bideoa; komunikazioa; ofimatika; oinarriko formakuntza; produktibitatea; sare sozialak; eta segurtasuna. Hamar alor horien gainekoak izango dira KZGuneak irailan zehar eskainiko dituen saioak. Izena eman nahi

duten herritarrei honako gomendio hau egin diete antolatzaileek: ikastaro bakoitzean libre dauden plazak zenbat diren kontsultatzea. Horretarako, www.kzgunea.eus web atarian sartu beharko dute interesa dutenek, edo Sasoeta auzoko Gaztelekura joan, eta galdetu. Helbidea, hauxe: Jaizkibel plaza, 14. Kontsultaren bat egin nahi izanez gero, 943 02 36 60 telefono zenbakira deitu daiteke, edo tutor.lasarte@kzgunea.net helbide elektronikora idatzi.

Aurrez esan bezala, ikastaro ia guztiak lau ordukoak izango dira, eta bi egun iraungo dute: saio bakoitza bi ordukoak izango da, ordu tarte hauetakoren batean: 09:00etatik 11:00etara, 11:00etatik 13:00era, 16:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 20:00etara.

Xumela koruko kideak, kurtso berrirako prest

Ikasturteko aurreneko entsegu saioa Oriarte Landaberri institutuan egingo dute irailaren 20an, astelehenez, 19:30etik 20:00etara. Lasarteoriatarak animatu dituzte koruko kide izatera: "Ez dugu gutxieneko mailarik eskatzen; gogoia eta ilusioa, aldiz, bai"

Txintxarri

Xumela koruko lagunak kantuan hasteko irrikaz daude. Jakinarazi dute irailaren 20an ekingo diotela ikasturte berriari, astelehenarekin. Oriarte Landaberri institutuan elkartuko dira, 19:30ean. "Ez dugu gutxieneko mailarik eskatzen, eta atea zabalik dugu; herritar bakoitzak bere ilusiotik eta gogotik jar dezala aletxoia".

Koronabirusaren pandemia tarteko, entseguak eta emanaldiak bertan behera utzi behar izan zituen koruak 2020ko martxoan, eta aurtengo uztailean arte ez dira berriro elkartu. Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatutako kantu eta dantza jiran parte hartu zuten orduan, giro ederrean. Pixkanaka-pixkanaka egoera hobera doala ikusita, 2021-2022 ikasturteari indar betean ekingo dio taldeak. Esan bezala, lehen entsegu irailaren 20an egingo du, Oriarte Landaberri BHI institutuan, 19:30etik 20:00etara. "Zerrenda pasa, kantatu, antolaketaz hitz egin eta ikasturterako planak egingo ditugu", aurreratu du Joxe Mari Agirretzek. "Eguraldiak laguntzen baldin badu, aulkiak patiora atera eta kanpoan ariko gara".

Koruko kide izan eta euskaraz giro ederrean abestu nahi



Euskal abestiz betetako errepertorioa dute Xumela koruko kideek. TXINTXARRI

dutenek 616 43 21 69 telefonora hots egin dezakete, informazio gehiago eskuratu edo zalantzak argitu nahi badituzte.

Urteurren "berezia"

Xumela koruko kideek 2006ko udazkenean burutu zituzten aurreneko entseguak. Urte horretan ekin zioten egitasmoari. Zabaleta Auzolan, Ttakun Kultur Elkarteak eta Landaberri Guraso Elkarteak bultzatu zuten egitasmoa, euskaltzaleak kantuen inguruan biltzeko asmoz. Hasiera-hasieratik hartu zituen zuzendari

lanak Josu Txapartegi Txapas zarauztarrak, eta hamabost urte geroago, korua zuzentzen jarraitzen du, eskusoinu eta guzti. Agirretzek aurreratu duenez, ekitaldi bat prestatzen ari dira urtemuga gogora ekartzeko: "Hamabosgarren urteurrena ez da makala, inondik ere".

Euskal Jaia, Euskal Inauteriak, San Pedro Jaiak eta antzeko ekintzak normaltasunera itzultzen direnerako, Xumela koruko kideek tonuan jarrita izango dituzte ahots kordak.

Ingurumena ezagutzeko eta zaintzeko ekintzak

Baso bainua eta Oria ibaiertza garbitzea izango dira aurtengo Aste Berdeko ekintzak; irailean zehar egingo dituzte

Txintxarri

Aste Berdea antolatu du Lasarte-Oriako Udalak, Artelatzen enpresarekin batera. Aldizkari hau inprentara bidaltzerako garaian, aurreneko ekintza egin gabe zegoen: baso bainua

Zumaburuko parkean barrena, 18:00etan hasita. Japonian sortutako *Shinrin-Yoku* jardueratik dator; naturarekin bat egiteko teknika da, eta helburu nagusietako bat da parte hartzen dutenen estres maila murriztea.

Bigarren jarduera irailaren 25ean izango da, larunbatarekin. Oria ibaiertzean egon daitezkeen hondakinak jasotzeko asmoz, garbiketa herrikoia egingo dute antolatzaileek, 09:30etik aurrera. Zumaburu parkean geratuko dira.

Ekintzetan parte hartzeko izena ematea beharrezkoa da, 943 67 02 49 telefonora deituta. Aste Berdea antolatzeko 7.955 euro esleitu zaizkio Artelatzi. Bi jardueraz gain, Froilan Elespe parke botanikoko informazio panelak berrituko dituzte.



Earra bertso eskolako hiru gaztek parte hartu dute lehiaketan. EARRA BERTSO ESKOLA

Earra eskolako kideak, Bertsolari aldizkariaren lehiaketan garaile

Zubietako erraustegiari buruzko zenbait kopia aurkeztu dituzte Araitz Ramos, Maddi Lasa eta Urko Ormazabalek

Txintxarri

Bertsolari aldizkariak 30 urte bete ditu aurreneko, eta ospatzeko bertso paper lehiaketa antolatu du. 14 urtera arteko gaztetxoek kategorian herriko Earra bertso eskolako ikasle batzuek parte hartu dute, eta lehen saria irabazi dute. Zubietako erraustegiari buruzko kopia batzuk prestatu dituzte. *Ke beltza gure inguruan* izenburua jarri diote, eta *Haizea dator ifarraldetik* doinua erabili.

Aurreneko kopia: *Munstro berri bat eraiki zuten/gaiztoa bezain garratza/dagoeneko eten duena/herri on baten arnasa/ingurukoak isilaraziz/egin zuten euren kasa/ostu zieten herritarrei/zuten botere eskasa/erraustegiak handitu zuen/intzidentziaren tasa/orain airean barrena dabil/gure zaborraren gasa*. Bigarren kopia: *Eskolan bertan eraiki zuten/baldintza*

txarregietan/etxe ondoan nahi ez zutena/ipiniz gure lurretan/ezin da lore berririk jaio/tristuraren errautsetan/eta zaharrak itota daude/ezintasun malkoetan/gure indarrak xahutu dira/jada borroka honetan/eskola beltzu zigutenetik/deabruan itzaletan. Eta hirugarrena: *Ustelkeria hustu ezean/itzaliko da argia/ez daigun a(ha)ztu hor dagoela/bailara honen zoria/batu gaitezen sendatzekotan/sortu diguten zauria/hau baita euskal gizartearen/aurkako hondamendia/ta laino beltzek ez estaltzeko/herriaren memoria/esku bietan eutsi dezagun/geroaren miraria*.

Mikel Mendizabal, Ekaitz Goikoetxea eta Eli Pagola izan dira epaimahaikideak. Kategoria bakoitzeko kopia irabazleak musikatu egingo ditu Oskar Estanga bertsolari eta musikariak, datozen asteetan.

Itxaropena pizteko

Haurren Minbiziaren Elkartasun Hilabetea da iraila, eta, horren harira, kanpaina jarri du martxan Aspanogi elkarteak, gizartea kontzientziatzeko eta oharkabean ez pasatzeko. *Itxaropena piztu* lelopean, gaixotasuna eta hori pairatzen dutenen egunerokoa islatzea da helburua. Sare sozialetan zabaltzeko *#EzOharkabeanPasa* traola sortu du Aspanogik.



Ikasturte berria, iazko neurriak

Lasarte-Oriako ikastetxeetako ikasle eta irakasleek 2021-2022 kurtsoari ekin diote. COVID-19aren pandemia oso presente dago oraindik, eta protokoloak ez dira aldatu. Sasoeta-Zumaburuan, Landaberri-Garaikoetxean eta Oriarten izan da TXINTXARRI

Txintxarri

Uztaila eta abuztua opor giroan igaro ostean, iritsi da berriz ere ikasketei ekiteko garaia. Iazko nekeak gaintuta, indarberrituta, deskantsua hartuta, ziur batek baino gehiagok sentitu duela gelakideekin elkartu eta udan bizitakoak elkarbanatzeko gogoia, nahiz eta beste hainbatek gusturago kontatuko lizkioketen elkarri kontuak, eskolatik kanpo.

Ekidin ezina da, ordea, ikastetxera itzultzeko eguna,

eta Lasarte-Oriako ikasleek ez dute hutsik egin.

Irailaren 9an ekin diote Sasoeta-Zumaburu, Landaberri-Garaikoetxea eta Oriarte BHiko ikasle eta irakasleek 2021-2022 ikasturteari. Urduritasuna, poza, emozioa, tristura. Emozio saltsa ugari sortu dira ikastetxeen sarreretan.

Ikasturte berri bat hasi dute, baina COVID-19ak eragindako pandemiari aurre hartzeko ezagunak dituzten neurriek mantentzen jarraitu beharko dute. Jakin badakite, esaterako,

maskarak jantzita egon behar dutela, eta burbuila bereko ikaskideekin batu daitezkeela.

Horrela, eskolako materialez betetako bizkarrekoak gainean hartu eta hasi dute bide berri bat, eta irakasleek prestatutako ikasturteari aurre egin beharko diote orain.

Hain zuzen ere, Sasoeta-Zumaburuko, Landaberri-Garaikoetxeako eta Oriarteko zuzendaritza taldeekin hitz egin du TXINTXARRI-K, 2021-2022 ikasturtearen nondik norakoak biltzeko.



Senideek lagunduta iritsi dira haurrak lehen eskola egunera. TXINTXARRI



Landaberri LHko ikasleak, autobusetik jetsita, ikastetxera iristen. TXINTXARRI

Sasoeta-Zumaburu

Urduritasuna, emozioa, poza, tristura ere bai baten batek... Emozio saltsa Sasoeta LHn. Dena den, sentimendu horiek gaztetxoan aurpegiatan atzematea ez da erraza izan, iaz bezala, maskarak jantzita eraman behar dituztelako. Ikasturte berria, baina iazko osasun neurriak: ratio bera geletan, ikasleen burbuilak...

Sasoeta-Zumaburuk zuzendaritza taldea aldatu du: Maria Sastre da zuzendari berria. Ikasturtea hasi aurreko asteetan oso lanpetuta ibili bada, zer esanik ez lehenengo egunean, irailaren 9an, osteguna. Telefonoa jo eta jo, gurasoak galdezka, ikasgelak antolatu beharra... Hala ere, tartetxo bat atera du TXINTXARRI-ko kazetariarekin hitz egiteko, eta eskertu du: "Tentsio pixka bat askatzeko balio izan dit".

Ikastetxeetan jarraitu beharreko protokoloa iazko bera denez, "errazagoa" izan da ikasturtea antolatzea, baina horrek ez du esan nahi aise egin dutenik.

"Azpimarratu nahi dut irakasleak egiten ari diren lana; oso-oso langileak dira, zorte izugarria dugu". Iazko kurtsoa "oso nekatuta" bukatu zuten langileek. "Fisikoki bainoago, mentalki". Pilak "guztiz deskargatuta" zituztela joan ziren oporretara, baina kargatu dituzte atzera ere, eta "gogotsu" daude haurrak hezteko. "Alde emozionala lantzea

ezinbestekoa da; ikasleei asko eragin die pandemiak".

Sastre agurtu aurretik, sarrerako korridorera atera gara, eta bospasei ikasle hara eta hona zebiltzan, irakasle batekin, ikastetxea ezagutzen. Zuzendariak azaldu duenez, kurtsoa lehen egunean harrera berezia egiten diete ikasle berriei, hasiera ez dadin horren arrotza izan.



Senide ugari ikasleak lagundu dituzte ikastetxe sarrerara. TXINTXARRI

Landaberri-Garaikoetxea

Indarberrituta, gogoz iritsi dira Landaberri LHko ikasleak lehen eskola egunera. Autobusak ateak zabaldu bezain laster korrika hartu dute zain zituzten irakasleenganako bidea; antzematen da udako oporralditik bueltan direla. Ikasturte berria hasi dute, baina, tamalez, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko iazko neurri berak mantendu beharko dituzte, aurten ere, ikasle guztiek. Neurri horien artean daude, besteak beste, maskarak jantzita edukitzea, burbuiletan antolatzea, eta abar.

Zuzendaritza talde berriarekin ekin dio Landaberri-Garaikoetxeak ikasturte berriari. Konsuelo Aizpurua da zuzendari berria, eta harekin hitz egin du TXINTXARRI-K, lehen eskola eguna hasi bezperam. Ikasturtea nola

prestatu eta aurreikusten duten galdetuta, kontatu du iazko prestaketa lanen antzekoak eginaz bideratu dutela aurtengoa ere, baina "nahiko lanpetuta" ibili direla aitortu du: "Zuzendaritza talde berria gara, eta kokatzen ibili gara".

Guztira 780 ikasle inguru arituko dira aurten Landaberri HHn eta LHn, 39 gela, eta lantalde osoaren nahia da "ahalik eta normaltasun handienarekin eta giro lasai eta atseginarekin" igarotzea ikasturtea.

Lehen eskola eguna izanagatik ere, giro atseginean hartu dituzte irakasleek ikasleak eta baita ikasleek irakasleak ere. Jakin badakite ekainera arteko bidea hasi besterik ez dela egin, baina ziur, denek elkarrekin ikasturte atsegina igaroko dutela.

Oriarte BHI

Hasierak gogorak bezain zirrargarriak dira maiz, eta ikasturte berriak etor daitekeenaren aurrean sentipen anabasa piztu ohi du ikasleengan. Ostegunean, hilak 9, hasi dituzte eskolak, baina bezperan izan dute Oriarte BHIko 830 bat ikasleek lehen harremana ikaskideekin, irakasleekin eta ikasgelekin. Itzulera leuntzeko lagungarri izateaz gain, aukera izan dute aurten ere bidaide izango duten koronabirusari aurre hartzeko neurriak gogoratzeko eta eguneratzeko.

Arlo honetan, behizat, ez dute ezer berririk ikasi behariko, aurreko ikasturtean gauditutako irakasgaia baita. "Iaz nahiko ondo joan zitzaigun, gelan ez genuen arazorik izan, arazoak kanpotik etorri ziren", nabarmendu du Koldo Zaballak.

Laugarren urtea du Zaballak Oriarten. Ikasturte hasiera berez zorarena bada, hastapenetan dena, are gehiago. Aste gutxi igaro dira zuzendari izendatu zutenetik eta jo eta su lanean darama ordutik. Oraindik "kokatzen" ari dela onartu du. Zuzendaritza talde berria buru-belarri dabil kudeaketan murgilduta eta ez du aldaketa handietarako astirik izan, hortaz, argi du Zaballak: "Oraingoz dakiguna egiten jarraituko dugu".

Edonola, egoerak ahalbidetzen duen heinean, zenbait ekimen berreskuratzen joateko asmoa dute. Esaterako, pantailak atzen utzi eta saiatzen ari dira bilera batzuk aurrez aurre egiten, "jendeak pila bat eskertzen du"; halaber, irteera "xume" batzuk egitea ere aurrekusten dute, arinegi ibili gabe, "eskua zabaldu, baina tentuz".



Oriarte Landaberriko ikasleak patioatik sartu dira. TXINTXARRI



Ikasle talde bat, Oriarte Larrekoetxe ikastetxera bidean. TXINTXARRI



Landaberri LH ikastetxeko goiko patioan karpa bat jarri du udalak, soinketa bezalako jarduerak egin ahal izateko. TXEMA VALLES

Udalaren inbertsio plana aurrera doa

Oriarte Institutuko ikasleek astelehenean ekin diote ikasturte berriari, asteartean Landaberrikoek eta, Sasoeta-Zumaburukoek, berriz, asteazkenean. Segurtasun neurriak errespetatuz sartu dira ikasgeletan. Oriarte Larrekoetxe datorren astean hasiko dira

Txintxarri

Herriko ikastetxeetara itzuli diren herritarrek zenbait aldaketa atzeman dituzte; batez ere, Sasoeta eta Landaberri LHkoek. Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du udaran zehar zenbait inbertsio eta konponketa egin dituela. Sasoetan atletismo pista, gimnasia sartzeko gunea eta beste eremu batzuk asfaltatu ditu. Landaberrin, lan hauek egin dira: goiko patioa eta frontoi atzealdea asfaltatu dira; beheko patioa hormigoitu egin da —hasiera batean asfaltatu egin behar zuten, baina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila jangela eraikitzen ari denez zona horretan, zoru mota hori aproposagoa da, Agustin Valdivia alkateak zehaztu duenez—; soinketa bezalako jarduerak egiteko karpa jarri da goiko patioan; ateak eta barandak margotu dira; eta sare eta zutoin berriak jarri dira. Partehartze eta Gardentasun Saileko zinegotzi Nagore Duranek eman du inbertsio horien berri.

Udalak bi urterako inbertsio plana aurkeztu zuen martxoan.

Valdiviaren hitzetan, hezkuntza zentroak "zutabe oso garrantzitsua" dira; adierazi du, udal laguntzak jaso ahala, ibilbide orri horretan jasotako esku-hartzeak gauzatuko dituela udalak. "Hezkuntza sailak ikasturte hasieran egin du 2022. urterako deialdia, eta horrek denbora gehiago emango die udaletxei egin nahi dituzten lanak justifikatzeko; aurreko urteetan urte amaieran ematen zuten horren berri, eta epea abenduaren 31n amaitzen zen".

Hurrengo lanak

Alkateak aurreratu du hurrengo lanetako bat Sasoeta LHra sartzeko bide berri bat (Maialen Chourraut kiroldegi atzealdetik) egitea izango dela. "Teknikariak proiektua egiten ari dira, eta urte amaite aurretik lizitatuko da". Horrez gain, zentro horretako eremu bat berrurbanizatuko da. Esku-hartze gehiago: ikastetxe bakoitzean alarma bana instalatuko du udalak, Landaberri LHn izan ezik, hor dagoeneko badagoelako bat. Hipodromotik gertu dagoen eraikin horretan kamerak jarriko dira. "Lapurreta gehienak" bertan gertatzen direla

argudiatuta, segurtasun sistema indartzea erabaki du udalak. Aurrekontua 486.086 eurokoa izango da.

Sasoeta-Zumaburu eraikineko lanen ganean ere hitz egin du alkateak, nahiz eta horiek ez dauden udalaren esku, Hezkuntza sailaren esku baizik. "Hiru edo lau urte beranduago, arkupeak konpontzen ari da; adi gaude, segurtasun neurri guztiak bete daitezela obrek iraun artean".

Konponketa "ugari"

Zerbitzu eta Obra Publikoetako zinegotzi David Mateosek jakinarazi du konponketa "ugari" egin dituela udal brigadak ikastetxeetan. Bi nabarmendu ditu: Garaikoetxeako patioan HH2ko umeen espazioa zein den adieraziko duen hesitura, eta ura kanalizatzeko bideak konpontzea.

Pertsianak, iturriak, tinbreak, emergentzia argiak, entxufeen estalkiak, sabaiak... ere konpondu ditu udalak. "Udara bakoitzean egiten ditugu horrelako esku-hartzeak, eta horretan jarraituko dugu etorkizunean ere", adierazi du Mateosek.



Buruntzaldeko eskalategien zein Udaletako euskara zerbitzuen ordezkariak Urnietan ateratako argazkian. AIURRI

Euskara ikasi, aukerak biderkatu

Ikasturte zaila igaro dute Buruntzaldeko eskalategiek. Alabaina, pandemia ez da oztopo izan jardunari eusteko: buru-belarri aritu dira lanean eta kalitatezko hezkuntza bermatu diete herritarrei. Indartsu sentitzen dira 2021-2022 ikasturteari begira.

Alba Cabrera Jauregi ESKUALDEA
Nork bere arrazoiak ditu udako oporraldien biharamunean eskalategira hurreratzeko. Aspaldi logelako mesanotxean gordetako hizkuntza berreskuratzeko helburua dute hainbatek; seme-alabei etxeko lanekin laguntzeko desira, beste zenbait. Ama hizkuntzan sakonago trebatzeko premia ase nahian dabilenik ere izaten da, baita titulua eskuratu nahi duenik ere. Bada, euskara klaseak jasotzeko arrazoi adina aukera bermatzen ditu Buruntzaldeak: orotara, zortzi eskalategi daude eskualdean; bina Lasarte-Orian nahiz Hernanin; bana, berriz, Andoainen, Astigarragan, Urnietan eta Usurbilen.

Hala, astelehenetik ostiralera, goizez zein arratsalde, eskaintza zabala dute ikasleek euskara maila guztietan, bai aurrez aurreko klaseetan, bai autoikaskuntzaren

bidez. Hori ez ezik, gelatik kanpo ere euskaraz trebatzeko makina bat baliabide ipintzen dituzte eskalategiek herritarren eskura.

Bestalde, diruz laguntzen dute Buruntzaldeko udalek euskara ikasteko prozesua: herri batetik bestera kopurua aldakorra izan arren, guztiek bermatzen dute babes ekonomikoa, zenbait kasutan ikastaroa doako bihurtzeraino. Horrez gain, HABEK laguntzak ematen ditu, baldin eta erakundeak ezarritako maila edota baliokidea eskuratzen bada.

Oztopoak, aukera bihurtuta

Maldatsua izan zen iragan urte a m a i e r a e s k u a l d e k o eskalategientzat pandemia dela-eta. Ikasturtea apur bat kezkatuta hasi zutela du gogoan Aize Otañok, Hernaniko AEK-ko irakasleak; azken hilabeteak "bereziak" bezain "arraroak" izan dira

erakundearentzat. Harekin bat dator Lorendiñe Usarralde Lasarte-Oriako Udal Eskalategiko zuzendaria, ezjakin ekin baitzioten euskara klaseak emateari: "Beldurra sentitzen genuen, oro har, gizartean ere izua zelako nagusi".

Joan den ikasturtean, orotara, 771 herritarrek hartu zuten euskara ikasteko konpromisoa, musukoen nahiz gel hidroalkoholikoen artean. Egoeraren konplexutasunarekin ohartuta, goitik behera berrantolatatu zituzten eskalategiak, pandemiari aurre egiteko osasun-neurriak errespetatzeko xedez: ikasgelen aireztapena, distantzia soziala, garbitasuna...

Ikasgelako girotik harago, askotariko eragozpenak izan dituzte eskalategiek beren egunerokoa gauzatzeko, besteak beste, eskola-orduetatik kanpo antolatutako hitzorduak egiteko.

AEK-ko kideek, gainera, ondo baino hobeto oroitu dute ikasturtea, koronabirusak galarazi egin baitu Korrika antolatzea. "Gurean utzitako hutsune ekonomikoa nabaria da", dio Otañok, "baina gizartean du eragina euskararen aldeko aldarrikapena egun horietan kalera atera ez izanak".

Zailtasunak zailtasun, egokitzapen lanei dagokionez, "lan txukuna" egin dutelakoan dago Usarralde, "baliagarria izan da ikusteko zein baliabide ditugun eskura". Beren gaitasuna frogan jarrita, buru-belarri aritu dira lanean irakasle guztiak. Hala ere, goraiatzekoa da, zuzendariaren aburuz, ikasleek izandako jarrera, erantzun ona eman baitiote asteroko martxari. Usarralderekin bat etorrita, lana ondo egiteko gai direla agerian gelditu da Otañorentzat: "Berrasmatzen, moldatzen jakin dugu".

Ikasleen azalean

Euskararekin harreman estuagoa izateko borondatez eman zuten izena eskalategian Elaia Fadriquek, Elena Jimenezek eta Asier Erkiziak. B2 mailan aritu dira lehen biak; C2 mailan, azkena. Ezbairik gabe erronkari modu arrakastatsuan erantzun diote; euskara ikasi dute, batetik; eta, bestetik, askotariko jendea ezagutzeko aukera izan dute.

Gainera, euskal komunitatera gerturatzeko abagune ederra izan da ikastaroa hiru ikasleentzat. Esaterako, Erkizia, egun, segurtasunez mintzo da euskaraz, alegia, arauak ikasita, "beldurrik gabe" jarduten da "edonon eta edonorekin, egoera formaletan edo lagun artean". Gauza bera gertatu zaio Jimenezi, mihia zorrozten lagundu baitio eskalategiak: "Garapen handia nabaritu dut; oso pozik nago. Hizkuntzari dagokionez, oztopoak gainditzen laguntzen du eskalategiak".

Halaber, ados dago hirukotea: "Hizkuntza bati bihotza jarri behar zaio, sentimendua jarri behar diozu ikasketa-prozesuari"; eta horixe lortu dute eskalategiari esker, hizkuntzaz harago joaten, herriko harremanak saretzen, ahalduntzen eta aukerak biderkatzen. Ateak zabalik dituzte, horrenbestez, eskalategiek, euskara ikasi ez ezik, beste ohitura eta mundu ikuskera aberasgarriak ere ezagutu nahi dituzten herritarrentzat.



Baldintzak eta laguntzak

Andoain

Baldintzak: Andoainen erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85. Laguntzak: matrikularen %85 ikasle guztiei; familia ugari edo errenta txikikoei, %100. Autoikaskuntza, %100. 675 eurora arteko muga.

Astigarraga

Baldintzak: Astigarragan erroldatuta egotea. Asistentzia minimoa: %85. Laguntzak: Matrikularen %75 guztiei, 600 euroko mugarekin. Familia ugari koei, errenta txikikoei, eta abar: matrikularen %100.

Hernani

Baldintzak: Hernanin erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.

Laguntzak: Matrikularen %70. Langabeei eta ikasleei, %90. Finantzazio aukera desberdinak.

Lasarte-Oria

Baldintzak: Lasarte-Orian erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.

Laguntzak: Ohiko dirulaguntzak. %85.

Urnietan

Baldintzak: Urnietan erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %80.

Laguntzak: matrikularen %85, 600 euroko mugarekin. Langabeei, matrikularen %100.

Usurbil

Baldintzak: Gutxieneko asistentzia: %80. Laguntzak: guztiei, matrikularen %100. 600 eurora arteko muga.

Buruntzaldeko udalek %70 - %100 artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!



Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani




Astigarraga



**Eus
ka
ra
ikasiz**

Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



buruntzaldea.eus

Jo gogoko duzun euskaltegia eta izena eman!

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2
943 591 704
andoain@aek.eus

LASARTE-ORIA

Muntteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea, 17 behea
607 625 233
lasarte@aek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi, 11
943 557 801 - 607 592 864
Zilegi eskola: 663 043 314
hernani@aek.eus

USURBIL

Etumeta AEK Euskaltegia
Kale Nagusia, 43 behea
607 609 379
usurbil@aek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia, 48
607 610 687
astigarraga@aek.eus

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren gainean)
943 361 621
euskaltegia@lasarte-oria.eus

Hernaniko Udal Euskaltegia

Karobieta, 63
(anbulatorio zaharra)
943 331 896
euskaltegi@hernani.eus

URNIETA

Urnietako AEK
Errekalde kalea, 1 (tarteko oina)
662 338 747
urnieta@aek.eus

Zudairek, bi diploma Paralinpiar Jokoetan

Buruntzaldea IKTKo igerilaria brontzezko domina bat irabaztear izan da, 100 metro tximeleta proban. Abuztuaren 28tik irailaren 3ra aritu da Tokion kirolari gaztea. Lehenengo aldiz lehiatu da Paralinpiar Jokoetan, eta pozik dago egindakoarekin

Txintxarri

Buruntzaldea IKTKo Nahia zudaire Borrezo igerilaria Tokioko Paralinpiar Jokoetan lehian izan da. S8 mailako hiru probetan parte hartu du gazteak eta bitan laugarren amaitu zuen diploma eskuratuz. 100 metro tximeleta proban, gutxigatik da podiumera igo.

Abuztuaren 28an, larunbatean, egin zuen debuta zubietako igerilariak. Hasiara gazi-goza izan zen, ordea.

Paralinpiar Joko batzuetan lehenengoz uretara jauzi egin zuen 200 m. lau estilo probako sailkapenean. Tamalez, proban zehar huts tekniko bat egitea egotzi zioten epaileek, bular estiloan tximeleta ostikada egitea, eta kaleratua izan zen.

Abuztuaren 31n, ordea, estilo libreko 400 m. proban hartu zuen bere ordaina.

Buruntzaldea IKTKo igerilariak lehiakide gogorak zituen finalean. Proba hasieratik Stickney eta Long estatubatuarrek ezarri zuten erritmoa eta euren artean banatu zituzten urrezko eta zilarrezko domina, hurrenez hurren. Hirugarren postuan Palazzo italiarra sailkatu zen.

Zudaire Borrezok, berriz, atzetik aurrerako lasterketa egin zuen. Lehenengo 100 metroetan



Nahia Zudaire Borrezo, tximeleta proban lehian. ESPANIako PARALINPIAR BATZORDEA

bosgarren postuan zegoen arren, 200 metroko pasea baino lehen Maack alemaniarra gainditu zuen.

Ostean, pixkanaka tartea irekitzen joan zen, baina Palazzo italiarra eta podiuma urrun zituen gazteak. Beraz, erreferentziarik gabe egin zituen azken metroak eta 5:07.67ko denbora eginez, ezin izan zuen Espainiako errekorra gainditu. Hala ere, 4. postua eta diploma olinpikoa eskuratu zituen igerilari gazteak.

Ostiralean, irailaren 3an, Buruntzaldea IKTKo igerilariak azkenekoz egin zuen jauzi Tokioko Aquatic Centreko igerilekura; 100 m. tximeleta probako finalean lehiatu zen.

Brontzea, gertu

Proba zirraragarria izan zen. Lehen luzeko erdialdera Jessica Long estatubatuarrek eta Viktoria Ishchiulova errusiarrak aurrea hartu zuten eta bien artean lehen postuak banatuko zirela argi geratu zen.

Ainhoa Martin, Espainiako hirugarren

Abuztuaren 3tik 7ra, Udako Espainiako Open eta Junior txapelketak jokatu ziren Las Palmas de Gran Canarias, Kanaria Uharteetan. Bidasoa XXI taldeko Ainhoa eta Leire Martin herritarrek parte hartu zuten lehiaketan eta era paregabean amaitu zuten udako denboraldia: dominak, markak eta absolutu mailako A finaletarako sailkapenak.

Aipagarriena, Ainhoa 400 m. estilo proban egindako balentria. Absolutu mailako podiumera igo zen gaztea lehenengoz. Bere marka hautsi eta brontzezko domina eskuratu zuen.

Ez zen A mailako final bakarra izan, 200 m. estilo proban seigarren izan zen Ainhoa eta 200 metro estilo proban, berriz, bosgarren. 50 m. tximeleta proban B finalean ere izan zen eta hamaikagarren izan zen.

Egindako lanari esker, absolutu-gazte mailan lau domina jantzi zituen Ainhoa: urrea 400 m. estilo proban, zilarrezkoa 200 m. bular proban eta bi brontzezko, 100 n. braza eta 200 m. estilo proban.

Leire ere A mailako final batean lehiatzeko sailkatu zen, 200 m. bizkar proba. Bere marka pertsonala ondu eta absolutu-gazte mailako garaile eta absolutu mailako zortzigarren izan zen.

Horrez gain, absolutu-gazte mailako zilarrezko domina eskuratu zuen Leirek 50 m. bizkar proban eta absolutu mailako beste hiru B finaletan ere lehiatu zen: 200 m. lau estilo, 100 m. tximeleta eta 100 m. bizkar probetan.



Ainhoa eta Leire Martin, dominekin. J. V. MARTIN

Atzetik hiruzpalau igerilari zeuden burutik gertu. Pasean Zudaire Borrezo hirugarren postuan igaro zen eta brontzezko domina ukitu zuen hatz puntetkin Zubietako gazteak.

Alabaina, Laura Carolina Gonzalez Rodriguez kolonbiarra gertu zegoen. Azken metroetan igerilari gipuzkoarra harrapatu eta borroka bizia izan zen bien artean. Azkenean, ehuneko gutxiengatik kolonbiarrak eraman zuen domina eta zubietarrak diploma.

Zudaire Borrezo pozik dago bere lehen Paralinpiar jokoetan egindako lanarekin.

Buruntzaldea IKT lanean

Bestalde, Buruntzaldea IKT igeriketa taldeak irailaren 13an, astelehenarekin, hasiko du denboraldi berria.

Hori dela eta, herritarrei gogorarazten die 2014an eta aurrez jaiotako haur eta gaztetxoentzat izena ematea irekita dagoela. Inskripzioa www.buruntzaldeaikt.eus webgunean egin behar da.

Aitor Mansok, emaitza onak IV. Jatako Igoeran

Lasarteoriako gidariak 7. mailako garaikurra eta eserleku bakarreko ibilgailuetan bigarren postua lortu ditu

Txintxarri

Hilabeteko etenaldiaren ostean, Euskadiko mendi txapelketari jarraipena eman zaio. Bakion izan dute hitzordua irailaren 4an, IV. Jatako igoera eta Aitor Manso herritarrek emaitza paregabeak

lortu ditu; 7. mailako garaile izan da, eserleku bakarreko ibilgailuetan bigarren eta sailkapen nagusiko hirugarren.

Probako 33 parte-hartzaileek lau igoera burutu dituzte, bi entrenamendu saio eta bi

lasterketa. Guztien artean azkarrena Joseba Iraola izan da. Denbora: 1:29.852.

Bigarren postua eskuratzeko, berriz, lehia handia izan da Aitor Manso herritarra eta 6. mailako Bruno Scherrerren artean. Biek atzetik aurrerako proba egin dute.

Mansok BRC B49 ibilgailura eta maila berrira ongi moldatzen ari dela erakutsi du. Tamalez, azken txandan lehen lasterketan egindako denbora gainditu eta Lagun Artea taldeko Porsche GT3ak eraman du bigarren postua.



Manso, 7. mailako podiumeko gorenean.

BIZKAIKO AUTOMOBILISMO FEDERAZIOA

Hala ere, arestian aipatu bezala, Manso ez zen esku hutsik itzuli; 7. mailako garaikurra erdietsi zuen eta eserleku bakarreko ibilgailuetan bigarren. Horri esker, maila horretako Euskadiko txapelketako bigarren postuan finkatu da gidari gaztea eta Gipuzkoako txapelketa eskuratzeko puntu baliagarriak lortu ditu.

Atsedena izango du herriko gidariak irailaren 18ra arte; XIV. Aiako Igoera lehiatuko du larunbat horretan.



Donostia Arraun Lagunak, Kontxako banderako sailkapenean lehian. DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK

Ligako lehiak, Kontxako Banderan jarraipena

Donostia Arraun Lagunak eta Hondarria Bertako Igogailuak traineruak Kontxako Banderako Ohorezko txandan lehiatuko dira. Lugañene eskifaiak denboraldia biribildu nahi du; arerio gogorra izango du, ordea: Orio Orialki

Txintxarri

Donostia Arraun Lagunak, Orio Orialki, Donostiarra eta Hondarribia Bertako Igogailuak Euskotren Ligako lau traineruek Kontxako Bandera lehiatuko dute irailaren 12an, igandez, 10:00etatik aurrera. Lugañene eta mirotzen arteko lehia estua espero da, lehen jardunaldian

biek estropadako errekorra hautsi ostean.

Irailaren 5ean, probako lehen jardunaldian lortu zuten sailkapena lau ontziek. Herritarrak kide dituzten eskifaiak, Donostia Arraun Lagunak eta Hondarribia Bertako igogailuak, bigarren txandan parte hartu zuten. Hibaika eta Chapela izan zituzten arerio.

Lehen txandan, Orio Orialki izan zen nagusi. Estropadako denborarik onena markatu zuen mirotzen taldeak, 10:33.26. Donostiarra bigarren izan zen, 10:40.24; hirugarren postua Tolosaldeak erdietsi zuen, 10:46.68, eta azkenik, Deusto helmugaratu zen. Euren lana eginda zain geratu ziren.

Denbora horiek buruan itsasoratu ziren bigarren txandako ontziak eta Donostia Arraun Lagunak, berriro ere, Kontxako Bandera irabazteko hautagai dela erakutsi zuen talde horiak lehen txandan ezarritako errekorra gaindituz.

Hasieratik beste aurkariei aurrea hartu eta Orio Orialki lehen txandan egin antzera, bost minutu eta hiru segundo behar izan zituen ziboga iristeko. Bigarren luzean, berriz, azkarragoa izan zen Lugañene eta 10:31,62 denbora egin zuen helmugan.

Atzetik, hamahiru segundora, Hondarribia Bertako Igogailuak iritsi zen. Taldeko kide Intza Fernandezek azaldu digunez, "gure estropada egitera atera ginen; Arraun Lagunak urruti geratu zitzaigun hasieratik eta beste erreferentziak hartu genituen kontuan". Eta sailkapen orokorrean laugarren denborarik onena egin zuen, ohorezko txandara sailkatuz.

Hibaikak 10:49.16 behar izan zuen ibilbidea egiteko eta Chapelako galiziarrek, 10:58.74.

Helburu ezberdinak

Talde berdea pozik da, berriro ere, Kontxako badian Ohorezko txandan lehiatu ahal izateagatik. Fernandezek aipatu modura, astez aste euren helburua aldatzen joan da: "Gure xedea, hasieran, Kontxarako sailkatzea zen, eta gero, ohorezko txandan sartzea".

Euskotren Ligan gertatutakoaren ostean, Hondarribia Bertako Igogailuak taldeko kideek ez dute bandera buruan, baina ohorezko txandan

euren onena emango dutela aurreratu du Fernandez herritarrak. "Gure bertsio onena ematen saiatuko gara. Ezustekorik ematekotan denbora hobekuntza bat izango da. Denboraldi osoa nola joan zaigun ikusita, nahiko zaila ikusten dut beste munduko zerbait egitea orain azkeneko estropadan. Izan ere, jaso dugun prestaketa puntu bateraino iristen baita".

Era berean, Kontxako Banderako sailkapena eta bi saioak Euskotren Ligako jaitziera prestatzeko baliagarriak izan direla onartu du. "Kontxako banderak, batez ere, playoffera doazen aurkariak ikusi eta taldearen egoera neurtzeko balio izan digu".

Donostia Arraun Lagunak tostako kide Aiora Belartietak eta bere talde kideek, bestalde, bandera dute helburu. Gipuzkoako, Euskadiko eta Euskotren Ligako banderak irabazi ostean, Kontxako Bandera ere eskuratzeak denboraldi paregabea biribilduko luke.

Alabaina, saria bereganatzeko berriro ere Orio Orialki gainditu beharko dute ohorezko txandan. Segundo bat eta 64 ehuneko. Hori da bi taldeen arteko aldea. "Lehia parekatua" espero dute, beraz, Lugañeneko eskifaiako kideek, Belartietaren hitzetan.

Donostiarra Lacturalek edo Hondarribia Bertako Igogailuak taldeak zortzi eta hamalau segundotara daude, hurrez hurren, eta horrek lasaitasuna ematen diela onartu du Lugañeneko kideak. Hala ere, estropadan ezustekoa eman dezaketela uzte du Belartietak.

Chourraut, K1 eta C1 beterano mailako Espainiako txapeldun

Munduko Kopako azken probak lehiatzen ari da herritarra, La Seu d'Urgellen eta Pauen

Txintxarri

Olinpiar Jokoetan zilarrezko domina lortu eta Lasarte-Oriako herritarrek harrera beroa egin ostean, Maialen Chourraut piraguistak Sortera, Kataluniara egin zuen bidaia abuztuaren 7an eta 8an, Espainiako txapelketan parte hartzeko; K1 mailako eta C1 beterano mailako txapeldun izan zen.

K1 mailan borroka ikusi ahal izan zen. Kanporaketa eta finalerdian, Club deportivo Mig Segreko Laia Sorribesek eta Atletico San Sebastian taldeko kide Miren Lazkanok garaipena erraz jarriko ez ziotela ikusi zen.

Finalean, ordea, Chourrauten esperientzia nagusitu zen. Sorribes eta Lazkano baino

azkarragoa izan zen eta titulu bat gehiago gehitu zuen bere garaipen zerrendara.

Hori gutxi balitz bezala, C1 beterano mailan ere lehiatu zen herritarra, garaipena erdietsiz.

Sailkapenean jaitziera garbia egin zuen arren, finalean bederatzigarren atean arazoak izan zituen herritarrak. Hala ere, lehen postuan amaitu zuen proba.

Munduko Kopa

Irailaren 3tik 5era, berriz, Munduko kopako proba jokatu zen La Seu d'Urgellen, Katalunian.

Olinpiar Jokoetako arerioak, berriro ere, aurrez aurre izan



Maialen Chourraut, Munduko Kopako lehian. RFP/AGUSTÍ CUCURULLS

zituen Chourrautek. Tamalez, ezin izan zen finalera iritsi.

Finalerdian 95.75eko marka egin arren, jaitzieran bigarren

atea ukitu zituen herritarrak eta horrek lau segundo gehitu zizkion. 11. postuan amaitu zuen lehia Tokioko zilarrezko dominadunak, sailkapena ematen zuen hamargarren postutik ehuneko gutxitara.

Tokion brontzezko domina erdietsi zuen Jessica Fox australiarrak eraman zuen garaikurra.

Lasarteoriatarrek Pauen, Frantzia atera dezake arantzatzko hori, hiri horretan lehiatuko den Munduko Kopako finalean.

Ostiralean, irailaren 10ean, K1 mailako sailkapen proba jokatu da; eta irailaren 11n, larunbata, berriz, finalaurrekoa eta finala.

Partidaz partida, igoera fasearen bila

Ostadar SKTko Erregional Gorengoak denboraldiaurre ederra egin du. Lagunartekoetan fin lan egin ostean, Hernani izango du arerio ligako lehen partidari. Kadete Ohorezko Mailako eta Jubenil Ohorezko Mailako taldeek ere hasiko dute lehia

Txintxarri

Baloia biraka hasiko da Gipuzkoako futbol zelaietan. 2021-2022 denboraldia hasiko da talde federatuentzat eta Ostadar SKTko hiru taldek euren lehen partida ofiziala jokatu dute: Erregional Gorenak, Jubenil Ohorezko taldeak eta Kadete Ohorezko taldeak.

Kadete Ohorezko Mailako taldea izango da lehena zelaira jauzi egiten. Villabonako Arratzain zelaiaren etxeko taldea izango du aurrez aurre irailaren 10ean, ostiralarekin.

Jubenil Ohorezko taldeko kideek Tolosan izango dute denboraldiko lehen aurkari. Hitzordua, irailaren 11n, larunbata, 18:00etan Usabalen (Tolosa).

Talde prestatzen

Erregional Gorengo taldeak, berriz, igandean, irailaren 12an, jokatu du, etxean. Hernani izango du aurrez aurre, 10:30etik aurrera, Raul Pitu Rodriguezen eta Unai Iribarren taldeak. 2020-2021 denboraldi ezohikoan ez lehiatzea erabaki zuten, Gipuzkoako federazioak antolatutako lagunarteko txapelketari uko eginda. Abuztuaren 9an hasi zituen entrenamenduak.

Talde urdin-beltzeko muina mantentzen den arren, Ostadar SKTra itzuli edo lehen taldera igo diren jubenilekin osatu du taldea. "Hiru jubenil igo dira. Iaz jokatzetik izan ezin zuten bi fitxaketa ditugu: Iñigo Gonzalez eta Zarauztik etorri zen Andoni Sanchez. Gainera, Pasaian 3. mailan zegoen Julen Campo eta Vasconian zegoen Aitor Igarriz itzuli dira. Jokalari horiek taldea indartu dutela esan daiteke", azaldu du entrenatzaileak.

Entrenamenduetan gogor lan egiteaz gain, denboraldiaurrean bost lagunarteko jokatu ditu Erregional Gorengoak. "Iaz ez lehiatzea erabaki genuen, eta baloiarekin 'adiskidetzeko,' ahal



Ostadar SKTko (laranjaz) eta Vasconia jokalariek, baloiaren jabetza lehiatzen. TXINTXARRI

genituen lagunarteko gehienak jokatzera erabaki nuen", azaldu du Rodriguezek. Landetxa, Dunboa-Eguzki, San Marcial eta Axular eta Vasconia izan ditu arerio Ostadarrek.

Garaipena Vasconiaren aurka

Azkena, Erregional Goreneko Vasconia. Neurketa irailaren 4an, Michelin kirolgunean jokatu zen, eta 3-1 gailendu ziren etxekoak.

Baloiaren jabetza Vasconiak izan zuen gehienbat, baina urdin-beltzek presio lana ongi egin zuten aurrean, baloi dezente lapurtu eta abagune arriskutsuak sortuz. Hala, atsedena heldu ziren. Ivan Ruizek, bitan, eta Julen Campok sartu zituzten golak.

Bigarren zatian, berriz, bi taldeek beroaren eragina pairatu eta jokoaren erritmo mantsotu egin bazen ere, bi taldeek gol gehiago sartzeko aukerak sortu zituzten. Horietako batean, norgehiagokaren amaieratik gertu, Vasconiak alde zertxobait estutu zuen, gol bat eginda.

Itxura ona

Ez da hori irabazi duen partida bakarra izan. Izan ere, norgehiagoka bakarra galdu du

taldeak liga prestaketa-lanetan; Dunboa-Eguzkik 3-2 garaitu zuen talde urdin-beltza.

Horregatik, liga hasteko prest dagoela uste du taldeko entrenatzaile Rodriguezek: "Itxura ona du taldeak".

Hala ere, oraindik hobetzeko gauzak daudela ere jakitun da. "Partidetan taldeak dituen sentsazioen arabera egingo dugu lan denboraldian zehar".

Horri esker, pausoz pauso, partidaz partida helburua lortzea espero du entrenatzaileak, igoera faserako sailkapena. "Aurten hiru multzotan banatu gaituzte eta bakoitzeko lehen lauak sailkatuko dira igoera faserako. Horien artean egotea espero dugu. Eta gero, gerokoak".

Lehen hitzordua Hernaniren aurka du, irailaren 12an, igandez. "B taldea da, beraz, maila handiko jokalariek izango ditu. Nik jokalariei esaten didan bezala, Gu ez gara Real Madril, eta ez ditugu hiru jokalarik partida erabaki ahal dutenak; gu talde batgara eta guztiok batera partidak aurrera atera behar ditugu. Ezin gara arerioez fio", azpimarratu du Erregional Gorengoaren entrenatzaileak.



Raul Ramos (arrosez), Donostia Sari Nagusiko helmuga igaro ostean. TXEMA VALLES

Lasarteoriarrak protagonista, udako denboraldiko agurrean

Raul Ramos jockeyak Donostia Sari Nagusia irabazi du; Angel Imaz prestatzaileak, berriz, Donostia Kirola saria

Txintxarri

Irailaren 5ean Donostiako Hipodromoak udako denboraldiari agur esan zion, harmailak beteta. Raul Ramos lasarteoriarrarentzat jardunaldi berezia izan zen. J.M. Osoriok prestatutako Liberrizaldia gidatuz, Donostiako Sari Nagusia - Irizar sariko 105. edizioa irabazi zuen.

Liberrizaldia garaipena lortzeko faboritoen artean ez bazegoen ere, Ramosek ongi gidatu zuen azken jardunaldiko sari nagusian. Lasarte-Oriako jockeyak taldean mantendu zuen zaldia.

Azken zuzenekoan, Finely Tuned eta Navia faboritoez erritmo aldatuta egin zuten aurre hartzeko; Luberriz, ordea, ez zuten atzean utzi eta esprintean gailendu zuen Ramos herritarrak gidatutako zaldia. Harmailek ez zuten herritarraren garaipena ospatzeko.

Era honetara, Ramosek udako denboraldiari amaiera ederra eman dio. Guztira, hamabost garaipen erdietsi ditu.

Donostia Kirola - Kirol Txartela sarian ere izan zuen presentzia herritar batek, Angel Imazek. Lasarte-Oriako prestatzaileak entrenatutako Rosy Moon behorra nagusi izan zen arratsaldeko hirugarren proban. Aurreikuspenetan faboritoetako bat zen eta pistaren egoerak, lehorra, bere alde egin zuen.

Polemika

Herritarrak protagonista izan ziren lasterketa horietaz gain,

beste hiru probaz gozatu ahal izan zuten zaletuek.

Duela hamabost urte Hipodromoan lasterka ari zela zendu zen Nagore Otaño jockeya gogora ekarriz eman zitzaion hasiera jardunaldiari. Jarana behorrek erraz irabazi zuten, Oiarzungo jockeyaren oroimenezko saria.

Eta polemikak ere izan zuten lekua udako azken jardunaldian, bigarren eta laugarren probatan, hain zuzen ere.

La Zarzuelako hipodromoan sarian, Glorytof debutari eta Walkczak behorren arteko liskarra egon zen. Bugatiko bihurtunean Walkczakek kanporaka mugimendu nabarmena egin zuen Glorytof kaltetuz.

I. Melgarejo jockeyak kexa ezarri zuen, hori gertatu ezean, garaile izango zela argudiatuz. Epaileek, ordea, ez zuten lasterketako emaitza aldatzeko arrazoi sendorik ikusi, eta Walkczak izan zen garaile.

Laugarren proba Hipodromoan Elkarte saria izan zen eta Rockolak irabazi zuen. Bigarren eta hirugarren postuak, ordea, epaileen esku geratu ziren, azken zuzenean Hanna eta Tales partehartzaileen artean istilua izan baitzen.

Freddy Martinez gidatzen zuen Tales bitan Hannaren gainera bota zen eta garaipenaren borrokan sartzeko aukerak zapuztu zituen. Epaileek kexa onartu eta Vicky Alonsok gidatutako Hannari bigarren postua ematea erabaki zuten.

Alex Saletak, denboraldi hasiera lanpetua

Aviron Bayonnais 'espoirs' edo etorkizuneko taldeko kide Alex Saleta 20 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin lanean ari da, Valladoliden. Larunbatean, irailaren 11n, amaituko du egonaldia.

Txintxarri

Alex Saleta herritarra 20 urtez azpiko Espainiako errugbi XV selekzioarekin lanean ari da, Valladoliden. Larunbatean, irailaren 11n, amaituko du egonaldia.

Aviron Bayonnaiseko etorkizuneko taldean dago egun herritarra, eta bertan egindako lana dela eta, Espainiako Selekzioak Europako txapelketa prestatzeko saioetarako deitu du. Azaroan Coimbra (Portugal) jokatu du txapelketa.

COVID-19aren pandemiaren eraginez 2020. urteko lehiaketa bertan behera geratu ostean, txapelketaz bateriko denboraldia izango du herritarrak.

Aukeratua izanez gero, bi Europako txapelketa jokatu ditu Saletak denboraldi bakarrean; 2021. urteko edizioa azaroan, eta 2022 hasieran, urte horri dagokion lehiaketa.

Liga hasiera

Irailaren 18an, berriz, denboraldiko lehen partida jokatu du Aviron Bayonnais elkarteak etorkizuneko



Alex Saleta, 2020-2021 denboraldiko azken partidaren jolasean. AVIRON BAYONNAIS

talderekin. Neurketa Stade Rochelais taldearen aurka izango da La Rochellen, Frantzia. Ligako bigarren multzoan lehiatuko dira Saleta eta taldekideak eta Stade Rochelais taldeaz gain, Stade Français Paris, Montpellier RC, Lyon OL U, CA Briviste Corrèze, Stade Rochelais, AS Montferrandaise, SU Agen, RC Vannetais eta USA Perpignan aurka ariko da.

Herritarrek munduko ligarik onenetarikoan ontzeko apustua egin zuen iaz, eta Baionako taldean jokatu duen bigarren denboraldia da.

Ohorezko B mailako edo maila federatuak diren kide diren lasarteoriarrak ere lanean dira eta liga hasierarako guztia prest izateko lagunartekoak ari dira jokatzeko.

Hernani CREko senior emakumezkoen taldea eta taldeko kide Paola Vega irailaren 4an, Zizurkilgo III. Melokotoi Topaketan lehiatu ziren. La Unica iruindarrak eta Donostiako Bera Bera izan zituzten aurrez aurre. Biarritz Olimpiquek ezin izan zuen parte hartu, Frantziako federazioaren baimenik ez zuelako lortu.



Kadete mailako pilotariak, iazko txapelketan lehiatzen. TXINTXARRI

Denboraldia hasteko, ezker hormako txapelketa

Intza elkarteak hiru bikote aurkeztuko ditu. Pilota eskolako haur eta gaztetxoek izena ematea ere ireki du

Txintxarri

Intza pilota elkarteak pilotari federatuak denboraldia hasteko prest daude. Asteak daramatzeko entrenatzen eta irailaren 17-19ko asteburuan binakako ezker hormako Gipuzkoako txapelketan emango dituzte lehen pilotakadak.

Lasarte-Oriako pilota elkartea hiru mailan lehiatuko da: 3. seniorra, 2. jubenila eta 2. kadetea. Kanpoan hasiko dute lehia Intzako bikoteek; etxeko lehen jardunaldia irailaren 26ko asteburuan izango da.

Pilota eskola

Intza pilota eskolako haur eta gaztetxoek, berriz, irailaren 14an hasiko dituzte entrenamenduak. Astearte eta ostegunetan benjamin,

alebin eta infantil mailako saioak egingo dira Michelin kirol guneko pilotalekuan.

Ordubeteko saioak izango dira. 2012. eta 2013. urteetan jaiotako txikiek 17:30ean izango dute hitzordua; 2010ean eta 2011n jaiotakoek, 18:30ean; eta 2008. eta 2009. urteetako gaztetxoek, 19:30ean.

Pilotan trebatu nahi duten haur eta gazteek eskolan izena emateko aukera izango dute irailean zehar, dagokien entrenamendu saioa baino lehen.

Informazio gehiago eskuratu nahiez gero, eskolako arduradun Jose Felix Solanorekin harremanetan jarri behar dira interesatuak. Telefonoa, hauxe: 657 77 03 18.

Ostadar Ipar Martxa taldeak ikasturte berria hasi du

Hilabete bakoitzean zehar egingo dituen ibilbideen egutegia ere jakitera eman du taldeak

Txintxarri


Oporraldiaren ostean, Ostadar Ipar Martxa taldeak irailaren 8an, asteazkenarekin, asteroko entrenamenduko saioak hasi ditu. Asteazkenetan, 19:00etan eta ostegunetan, 10:00etan, bi saio horietako batean parte hartzeko aukera dute taldeko kideek.

Horrez gain, ikasturtean zehar, hilabetero irteerak antolatu

dituzte gure inguruko txokoak ezagutzeko. Taldeko arduradun Rosa Ormazabalek azaldu duenez, iaz bezala, ibilbide luzea eta ibilbide motza izango dituzte hitzordu bakoitzean.

Txokoak ezagutzen

Era honetara, irailaren 25ean, Andoainetik hasita Aizkorriko mendira edo Leizaran bailara egingo dute.



Apirileko ibilbideko irudia. OSTADAR I.M.

Urriaren 17an, berriz, Buruntzaldeko Ibilbideen egunarekin bat eginez, eremuko

ibilbide bat egingo dute. Oraindik zehazteke dute.

Azaroaren 20ean, Zumaiara joango dira San Telmo eta Elorriaga arteko bidea egin edo Zumaiatik buelta bat emateko.

A b e n d u a r e n 11n, Irugurutzetako labeak edo Aitzondo ur jauzia ezagutu ahaliko dute Irun aldean.

Urtarrilaren 22an, Orio izango dute helmuga; Lasarte-Oriatik edo Igeldoko kanpinetik hasita.

Erreterriako Listorreta irteera puntu izango dute otsailaren 26ko ibilbideek eta Aldura mendia eta Susperregi jatetxea izango dira jomuga.

Martxoko hitzordua 26an izango da eta Zarauzko eraztun

berdean edo Vista Alegre parkean barrena ibiliko dira.

Iparraldera egingo dute txangoa apirilaren 23an. Donibane Lohitzune eta Getaria arteko bidea egingo du taldeak.

Maiatzako ibilbideak hilaren 28an egingo dira eta Aia herria eta Pagoeta mendia izango dituzte protagonista.

Ikasturteari emaiara emateko, ekainaren 18an, egun osoko irteera antolatu dute Urdaibaira.

Ostadar Ipar Martxako arduradunak azaldu duenez, hitzordu bakoitzeko bi ibilbideak egiten saiatuko dira. Hala ere, pandemiaren egoeraren arabera egutegian aldaketak egon daitezkeela aurreratu du.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Unai
Bizitzako urte berri honek ez zaitzala zahartu, baizik eta amets guztiak gauzatzen diren jakituriaz busti. Zorionak!



Mara
Zorionak, Eduar eta Maria, eta besarkada handiena hirurentzat familia osoaren partetik! Hau oparia hau, egin diguzuena!



Uxue
Zorionak Uxue! Egun zoragarria izan ezazula opa dizugu familiakoak. Muxu potoloak!



Noah
Zorionak Noah! 16 urte dagoeneko, ondo ospatu. Etxeko partetik.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen da Golf plazan, Landaberri-Garaioetxea ikastolaren frentean. Zabala, sarbide erraza, ekonomikoa. Harremanetarako zenbakia, 659 02 19 45.

LANA

ESKARIA

Haur hezkuntzako ikasketak amaitu berri ditut eta irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia, 616 26 11 96.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan.

Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 634 27 81 98.

Ikasturte berri honetan haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zenbakia, 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU

Paseorako bi txirrinda saltzen ditut, 100 eurotan

biak. Harremanetarako zenbakia, 670 60 74 95.

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktuak. Paseo poltsa opari. Dena 200 euro. 646 824 466.

Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. Harremanetarako zenbakia, 670 20 78 14, Amaia.

OHARRA

Ate irekien jardunaldiak antolatu ditu Beltzak RT errugbi eskolak

Lasarte-Oriako gaztetxoei errugbia ezagutzeko aukera eman nahi die Beltzak RTk, eta horretarako, ate irekien jardunaldiak antolatu ditu irailaren 10, 17 eta 24rako, ostiralarekin. 18:00etan hasiko dira, eta 10 (2012an eta 2013an jaiotakoak), 12 (2010-2011) zein 14 urtez azpikoei (2008 eta 2009) zuzendutakoak izango dira. Harremanetarako: 666 32 10 59.

Biyak Bat elkarteko jardueren Urrezko ezteien bikoteen izena ematea martxan

Biyak Bat elkarteak gogorarazten du, 2020. urtean edo 2021ean urrezko ezteiak egin dituzten elkarteko bazkideek azken egunak dituztela elkarteak antolatzen duen ospakizunean izena emateko; irailaren 15a da azken eguna. Bazkide-txartela eta familia-liburua erakutsi beharko dituzte inskripzioa egiterakoan. Inskripzioa hau ere egoitzeko bulegoan egingo da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

| OSTIRALA, 10 | DE MIGUEL | EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-22:00 |
|----------------|------------|---|
| LARUNBATA, 11 | DE ORUE | DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52 |
| IGANDEA, 12 | DE ORUE | ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49 |
| ASTELEHENA, 13 | LASA | DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51 |
| ASTEARTEA, 14 | GIL | LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74 |
| AZTEAZKENA, 15 | ACHA-ORBEA | GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29 |
| OSTEGUNA, 16 | URBISTONDO | URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67 |
| | | GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21 |

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

URTE OSOKO GUARDIAK APP-A eskuragarri app store edo android marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com orrialdean eskuragarri.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n. Deitu 943 37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Txakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaitzaileak: Igone Mendizabal, Olatz Bardaji, Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzua
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Txakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 10

ZUBIETA Kontzertua

Demode Quartet musika taldeak *Epa!* izeneko ikuskizuna eskainiko du. Antolatzaileek jakinarazi dute kontzertura joateko beharrezkoa dela sarrerak eskuratzea, 10 euro balioko ditu. Egunean bertan sarrerarik eskuragarri geratuz gero, horiek erosteko aukera izango da, baina alde zuzenetik ere erosteko aukera jarri dute. Horretarako usurbilkultura.eus/eu/ikuskizunak/demode-quartet-epa esteka jarri dute interesatuen eskura.

Errebote plaza, 18:30ean.

USURBIL Ikastaroa

Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak *Sagarraren heldutasun analisiak* izeneko ikastaroa antolatu du. Ikastaro horretan sagarraren heldutasuna aztertze hiru sistema azalduko dituzte: gogortasunaren neurketa, azukrearen neurketa eta almidoiaren azterketa. Antolatzaileek jakinarazi dute 23 pertsonentzako edukiera izango duela ikastaroak, eta izena ematea beharrezkoa izango da. Prezioa ere zehaztu dute: 15 euro. Potxoenea, 15:30ean.

ANDOAIN Erakusketa

Andoaingo Manuel Larramendi Kultur Bazkunak erakusketa antolatu du.



LASARTE-ORIA Aste Berdea Lasarte-Oriako Udalak, Aste Berdearekin bat eginik, egitarau berezia antolatu du aurten ere. Bi ekitaldi berezi programatu dituzte lasarteoriatarrentzat, eta, horietatik lehena, baso bainua izango da. Japonian sortutako *Shinrin-Yoku* jardueran oinarritua dago, eta herritarren estres-maila murrizteko diseinatutako osasun-programa nazional baten barneratua dago. Amaia Agote adituak zuzenduko du saioa, eta 16 urtetik gorako herritarrei zuzenduta dago. Aurrez izena ematea beharrezkoa da. Irailaren 10ean, ostirala. Zumaburu parkea, 18:00etan.

Andoaingo gudua gaitzat hartuta, emakumeak eta gerra izango da erakusketaren gai nagusia. Antolatzaileek jakinarazi dute bisita gidatuak ere egin daitezkeela, baina horretarako, aurrez izena ematea ezinbestekoa izango dela. Horretarako 943 30 35 40 telefono zenbakira deitu beharko dute interesatuek.

Bastero kulturgunea, 18:30etik 20:30era.

ZIZURKIL Kontzertua

Skabidean taldeak kontzertua eskainiko du. Emanaldira joateko gonbidapenak eskuratzea ezinbestekoa da (udal bulegoan). Joxe Arregi plaza, 19:30etik aurrera.

ZINEMA

USURBIL

¿Quién es quién?

Ostirala: 17:00, 19:30.
Larunbata: 17:00, 19:30.
Igandea: 17:00, 19:30.

After. Almas perdidas

Ostirala: 16:00, 18:30, 21:00.
Larunbata: 16:00, 18:30, 21:00.
Igandea: 16:00, 18:30, 21:00.

Candyman

Ostirala: 22:00.

Larunbata: 22:00.
Igandea: 22:00.

¿Con quién viajas

Ostirala: 15:40, 18:20, 21:05.
Larunbata: 15:40, 18:20, 21:05.
Igandea: 15:40, 18:20, 21:05.

El bebé jefazo: negocios de familia

Ostirala: 15:40.
Larunbata: 15:40.
Igandea: 15:40.

Free Guy

Ostirala: 18:55.
Larunbata: 18:55.
Igandea: 18:55.

García y García
Ostirala: 21:40.
Larunbata: 21:40.
Igandea: 21:40.

Gunpower Milkshake

Ostirala: 15:50, 18:35, 21:20.
Larunbata: 15:50, 18:35, 21:20.
Igandea: 15:50, 18:35, 21:20.

La Patrulla Canina: la película

Ostirala: 16:35.
Larunbata: 16:35.
Igandea: 16:35.

Maligno

Ostirala:

16:20, 19:05, 21:50.

Larunbata: 16:20, 19:05, 21:50.

Igandea: 16:20, 19:05, 21:50.

Shang-Chi y la leyenda de los Diez Anillos

Ostirala: 15:55, 18:00, 19:00, 20:40, 22:05.

Larunbata: 15:55, 18:00, 19:00, 20:40, 22:05.

Igandea: 15:55, 18:00, 19:00, 20:40, 22:05.

LARUNBATA 11

ZIZURKIL Antzerkia / Dantza

Hika Teatroa taldeak eta Oinkari dantza taldeak *Gazte* emanaldia eskainiko dute. Antolatzaileek jakinarazi dute sarrera doakoa dela, baina gonbidapenak eskuratzea ezinbestekoa. Pedro Mari Otaño ikastetxea, 19:00etan.

IGANDEA 12

DONOSTIA Giza Katea

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak Zubietako erraustegia geratzeko eskatuz Giza Katea antolatu du

Erraustegia = klima aldaketa aldarrirpean. Oraingoan Giza Katea Alderdi Ederretik, Donostiako Udalaren paretik, abiatuko dela jakinarazi dute mobilizazioaren deitzaileek.

Alderdi Eder, 11:00etan.

ASTELEHENA 20

LASARTE-ORIA Korua

Lasarte-Oriako Xumela koruak ikasturte berriari hasiera emango dio. Kalez kale kantuan egitera irten baino lehen, entseguekin hasiko dira. Arduradunek jakinarazi dute Oriarte-Landaberrin izango direla entseguak.

Oriarte-Landaberri 19:30etan

PARTE HARTZEKO AZKEN EGUNAK!

Udako ARGAZKI LEHIAKETA

Bidali zure argazkia irailaren 12ra arte (12a barne)

.646 82 44 66 (whatsapp)

.txintxarri@tlakun.eus

Argibideak: www.labur.eus/txintxarri2021

SARIA **aldika** **produktu bereziak**

Argazkia: Diery Dertinani

2021-2022 ikasturtea UDAL EUSKALTEGIAN

A1 eta A2 tituluak euskaltegia bertan lortzen dira.
B1 (1HE), B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.

IKASTAROAREN IRAUPENA: IRAILAREN 23TIK EKAINAREN 23RA

- Astelehenetik ostegunera. Astean 10 ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan
- Hiru ordutegi aukeran: 9:00-11:30 | 15:00-17:30 | 18:30-21:00.
- On-line (BOGA).
- 16 urtetik gorakoentzat.

MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 22RA ARTE

Lasarte-Oriako UDAL EUSKALTEGIA (Bekokale bidea, 1) Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00





EPA LASARTE HHI 2021-2022 ikasturtea

aurretiko hitzordua eskatzeko, deitu

MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 17RA ARTE

- Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...).
- Bigarren Hezkuntza (DBH-ko titulua ziklo ertaina eta gorena egiteko, 4 hilabeteko ikastaroak)**
- Gaztelania atzerritarrentzat.
- EUSKARA (0-1-2 mailak).

Tel. 943 37 64 43 / 943 36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.eus




Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2021-22

ONDO iBiLi!

IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatetakoak.
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

AGENTZIAK

BALDINTZAK

Udaleko euskaltegia Muntteri-AEK euskaltegia

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
 - Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez % 85eko asistentzia eta gutxienezko aprobetxamendua gainditua.

BEKA matrikularen arte %85a

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.



